

Hamar urte dantza eta antzerkian

■ Kukuka Antzerki eta Dantza eskolak 10 urte beteko ditu aurten ■ Ospakizun bereziak antolatu dituzte ■ 2011-12 ikasturtea berrikuntza, talde berri eta jende gehiagorekin hasi dute

Ikasturte berria oparoa izango da Kukuka antzerki eta dantza eskolarentzat, astelehenean denboraldia aurkezteko agerraldian arduradunek adierazi zuten bezala. Hamar urte dira Kukuka Zabaleta auzoan lanean hasi zela eta hau ospatzeko ikasturtean zehar ekintza eta ospakizun asko antolatuko dituzte. Bestalde, dantza eta antzerkian, bi esparruetan talde berriak sortu behar izan dituzte ekaineko aurre matrikula epean izan den eskaera handiari erantzuteko. Ohi bezala, berrikuntzak ere izango dira.

Dantzari dagokionez, iazko irakasgaiak mantendu dira, euskal dantza, euskal dantza sorkuntza eta dantza garaikidea. Talde gehiago egongo da baina bereziki aipagarria da euskal dantza sorkuntzak izan duen arrakasta. Maider Oiarzabal irakaslearen ustez, Kukukak egindako apustuak baten bitartez izan zen hau; "konturatu ginen adin batetik aurrera, batez ere DBH mailan, euskal dantza tradizionala uzteko joera zegoela eta hau saihesteko asmoarekin sortu genuen sorkuntza. Emaitzak bikainak izan dira eta aurten bai DBH mailakoa, 12-16 urte bitartean, baita helduen talde bat ere izango dugu lehenengoz".

Sorkuntzako talde berriez gain, garaikidean helduen beste talde bat aterako da aurten. Talde berriak sortzen diren neurrian, irakasleak behar ditu Kukukak eta ikasle izandako batzuk hasiko dira irakasle lanetan: "oso garrantzitsua da pauso hau eman ahal izatea. Horrek suposatzen du lan polita propioa osatzen ari garela".

Nagusiak eta Solaskideak

Antzerkian, sei urteko gorakentzako eskaintza egin da ohi bezala. Oraindik zehazteke daude taldeak baina iaz baino gehiago izango direla iragarri dute Kukukakoek, "adin tarte batzuetan jende askok eman du izena". Berrikuntzak, bat adinduen taldea eta bestea Solaskide-ko partaideena izango dira. Lehenengoan Xumela abesbatzako zenbait kide daude baina oraindik izena eman daiteke.

Bi taldeak oso interesgarriak dira arduradunentzat "nagusien taldeak asko poztu gaitu, antzerkia eta dantza edozein adinekin praktikatu daitekeela erakusten duelako." Solaskide-ko lagunak eurak proposatu zuten antzerki taldea osatzea eta oso ideia ona iruditu zitzaizkien antzerki eta dantza eskolakoek, "euskaldun berrien-



Kukukako arduradunak tartean Pablo Barrio alkatea bera aurkezpenean.

tzat esperientzia aberasgarria izango dela uste dugu, euskaraz mintzatzeko antzerkia praktika bikaina izan daiteke".

10 urte lanean

Ikasturte berezia da Kukukakoentzat: 10. urteurrena ospatzen dute eta ekintza bereziak egingo dira urtean zehar. Lau taldeekin hasi ziren lanean eta egun 50 taldetik gora, 600 pertsona inguru, mugitzen ditu Kukukak, "eta hau behar bezala ospatu beharreko ibilbidea

da". Asmoa hileroko ekimen berezi bat egitea da eta urrian, euskararen egunean, edota ekainean, festa potoloak antolatzea.

Kukukak bere jardunean bidelagun izan nahi du Udala eta horretarako bilerak egin ditu zenbait ordezkariarekin. Kultur eskaintza indartu beharra ikusten du Antzerki eta Dantza eskolak eta honen inguruko proposamenak helarazi dizkie Udal ordezkariari. Pablo Barrio alkatea bera Kukukako kide da

eta agerraldian parte hartu zuen. Bere iritziz, esparru hau indartzeko asmoa dute izan ere "egiteko modu berriak aurrera ateratzea da Udalaren helburua, bai Kukuka taldearekin, baita herriko beste elkarteekin ere. Udalaren konplizitateak izango dute aurrera eramaten dituzten ekintzetan".

Irailaren 29an aurkezpena

Irailaren 29an 19:00etan Kultur Etxeko Antzokian egingo den lehen ekitaldian aurkeztuko dute urteurrenaren egitaraua. Bertan, hamar urte hauetan antzerki eta dantza eskolak egindako ibilbidea erakusten duen 15 minutuko bideoa eta "Irrien lagunak" abestiarekin herrian egindako lib dub-a eskainiko dira ikasturte berriari hasiera ofiziala emanaz.

Izena emateko irailaren 19, 20 eta 21ean Kultur Etxeko lehen solairuan egin ahal izango da 11:00tik 13:00era eta 17:00tik 20:00ra bitartean, baita 655 847 345 telefonoan ere. Gainera, eskolatan berriro banatuko da izena emateko orria ekaineko aurre matrikulak konfirmatu, aldatu edota izena eman ez zutenek aukera hori izan dezaten. Egun eta ordutegi aldetik, aukera zabalago egongo dela iragarri dute. •



Buruntz-Azpi elkarteak 50 urte ospatuko ditu bihar egitarau zabal batekin /3

ALBISTEA/3

Indarkeriari buruzko PP eta PSEren mozioa atzera bota zuten beste alderdiek udal batzarrean



Ane Labaka Gpuntuak, Andoaingo Bastero kultur gunean /6

ikasi euskara eman izena aek-n
Antzerki ofizialak eta liburu hamabostak
www.aek.org

aek-k
hitza ematen dizu
euskara ikasi eta euskaraz jakingo duzu



munterri
euskaltegia

- Euskara agiriak
- EGA
- Hizkuntza profilak (1-2-3)
- Euskalduntzeko maila guztiak

Geltoki kalea 17, beheka • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 372863 lasarte@aek.org

Neure kabuz



Gero arte

Ez zaizkit agurrak gustatzen. Gero arteak nahiago izaten ditut, laster berriro elkartuko garenen sentsazio goxoa barne-barneraino gezi bat bai-liztan zuzentzen duten horietakoak, lagun baten adioaren erantzun gisara batzuetan; edo herrimari zuzenduak, besteetan. Ondo izan esateak hobeki sentiarazten nau, edota, negar moko artean bada ere, muxu potolo bat bidaltzeak.

Nire ahoak behin baino gehiagotan egin behar izan du baina dardara, adorea hartuta esan ere nahi izaten ez dituen hitz horien aurrean, imaginatu ere nahi ez dituen egoera horien esperoan; urrunean, kilometro ugariara batzuetan, hizkuntza arrotz bat mintzalagun hartuta "sekula ez naiz ahaztuko" esan nahian. Gertuago besteetan, autobus baten kristalari so, isladaren beldur, eta begirada triste bat are malenkoniatsuagoa den beste batekin gurutzatuaz. Edota gertu, oso gertu, bihotza bera baina gertuago, gozo eta izu, denborak batzuetan ziztada zorotzez eragin ditzakeen kalteei aurre egin nahian, azkenean fruituak harrari kosk egingo ote dionaren beldur.

Ez naiz ordea betirako agurrez mintzo. Betirakoak ere gustatzen ez zaizkidalako, sinesten ez ditudalako.

Gero arte esan beharrean naiz gaurkoan, halabeharrez edo hala-beharrez. Gero arte, bai, eta ez agur. Berdez jantzi-tako uharte hartan egin gisara; odolez eta eguzki printzez margotutako herri hartan bezala; zure etxepean, ilunpetan egin modura. Berriro itzultzeko. Berriro elkarri so egiteko. Gero arte beraz, eta eskerrik asko tartetxo hau eskaintzeagatik.

Txaxo Arrizabalaga

Zorion-agurrak



Unai

Zorionak zure urtebetetzea izan delako. Familia osoaren partetik.



Nagore

Zorionak Marisogin!!! Bost muxu potollo aitaxo eta amatxoren partetik.



Antonio-Irene

Mila zorion zuen urrezko etzeietan familiaren partetik, muxu asko!!



Jone

Abuztuak 26an 12 urte! Urte askuan txapela kaskuan! Zorionak Lide, Beñat ta gurasoak.



Espe eta Ivan

Asko maite zaituztet eta betirako nirekin egotea espero dut. Zorionak!!



Ainhize

Zorionak politte! Egun ona pasa, muxu asko eta belarrietatik 8 tiroi denon partetik.



Nagore eta Ane

Zorionak bikote!!! Wuuuuuu, ze handiak, dagoneko bost urte. Muxu asko



June

Zorionak eta txokolatezko muxuak 4. urtebetetzean. Segi alai eta jator. Aita, ama eta Ane



Oier

Zorionak. Txokolatezko bost muxu gurasoen partetik!



Maitane

Zorionak etxeko erregina! Bost muxu potolo ama, aita eta Itsasoren partez



Joana

Zorionak Joana! Zure aita, ama, Enara, aitona eta Maiteren partetik



Imanol

Zorionak guraso, lehengusu Richar, Pablo eta Maiteren partetik.



Markel

Zorionak eta muxu handi bat!!! amatxo, aitaxo eta Gorkaren partetik.



Adei

Zorionak bitxito! Muxu pila bigarren urtebetetzean, familia eta lagunen partetik.



Leire

Zorionak zure bosgarren urtebetetzean.



Itziar

Zorionak eta sei muxu handi familiaren partetik.



Naiara

Ondo pasako zenuela espero dugu "Potato" familiak. Zorionak polita!

Oharrak: txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- 116m²-ko aparteko pisua salgai, kultur etxe parean. Guztiz berrituta. 3 gela, 2 komun, jantzigela, egongela eta sukalde ederra. Gela guztiak kalera ematen dute, ligo de Loyola eta Geltoki kalea. Sartzeko prest. 330.000 euro. 639 73 84 13
- Pisu bat edo logela bat behar dut errentan, Lasarte-Orian, Andoainean edo inguruan. Harremanetarako: 693 380 377.
- Pisu bat behar dut konpartitzeko Lasarte-Orian edo inguruan. Tel.: 637 234 705.
- Garaje itxi bat alokatzen da ligo de Loiola kalean, Lasarte-Orian. 686 674 552
- Etxea salgai Hernani erdian. 685 369 952.
- Garaje bat salgai Michelinen. 18 m. karratu ditu eta lehenengo pisuan dago. 12.000 euro. Harremanetarako telefono zenbakia: 606 137 150.

Salerosketak

- Korrika egiteko makina saltzen da. DOMYOS TF 160 modelo. Azarora arte garantian Prezioa 150 euro. 633 710503
- Peugeot Partner kotxe bat salgai, hiru atekoa. Hamar urte ditu. Harremanetarako zenbakia, 628 904 130.
- Bibolin bat salgai, 1/4 neurrikoa, berri-berria. 628 904 130.
- Trikitixa ona salgai, Zero Sette markakoa eta lau ahotsetakoa. 943 371 063 675 006 810.

Lan-eskaintzak

- Pertsona euskaldun bat behar da Lasarte-Oriako taberna batean lan egiteko. Abuztu osoan eta urtean zehar asteburuetan, extra moduan. Tel.: 629 951 931.
- Euskara irakasteko pertsona bat behar da, 6. mailako gaztekoiei gramatika emateko. Irailatik aurr. era. 686 320 521, Espe.

Lan-eskariak

- Klase partikularrik ematen ditut, matematika eta estatistika, edozein mailan, esperientzia handia: 646717676. Xabier Puente

Bestelakoak

- Euskara, ingeles, matematika, hizkuntza... eskola partikularra. 693 601 222, 943 36 25 32

Heriotzak

- Bienvenido Alonso Martin, irailaren 14an 67 urte zituela
- Emilia Mata Tobajas, irailaren 12an 88 urte zituela
- M^a Angela Santos Moreno, irailaren 11ean 95 urte zituela
- Juan Carlos Chaves Duque, abuztuaren 29an 41 urte zituela
- José Arroyo Belio, abuztuaren 22an 76 urte zituela
- Mikel De Sosa Tejero, abuztuaren 20ean 41 urte zituela
- M^a Dolores Iturriz Urresti, abuztuaren 16an 68 urte zituela
- M^a Dolores Aduriz Iraola, abuztuaren 13an 82 urte zituela
- Francisco ligo Delgado, abuztuaren 10ean 80 urte zituela
- Candido Suescun Suescun, uztailaren 29an 89 urte zituela

Jaiotzak

- Aitor Quian lñiguez, irailaren 4an.
- Maisun Gonzalez Ahibiti, irailaren 1ean.
- Arkaitz Lasa Ormazabal, abuztuaren 27an.
- Emilia Abigail Gonzalez Arce, abuztuaren 20an.
- Mikel Manterola Irastorza, abuztuaren 11an.
- Oier Jauregi Ormazabal, abuztuaren 10ean.
- Naren Daniel Rey Murillo, abuztuaren 9an.
- Itsaso Bermejo Lopez, abuztuaren 7an.
- Ainara eta Ander Mendez Teijon, abuztuaren 2an.

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 16
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Larunbata, 17
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Igandea, 18
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Astelehena, 19

Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Asteartea, 20
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Asteazkena, 21
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Osteguna, 22
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chucua, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zerua Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrirek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Elkartearen 25. urteurrenean kideen argazkia atera zuten. BURUNTZ-AZPI ELKARTEA



Buruntz-Azpi elkarteak txapeldun ugari izan ditu ehiza arloan, baita arrantzan ere.

50. urteurrena ospatuko du bihar larunbata Buruntz-Azpi elkarteak

Basaundi bailarako elkarteak hainbat ekintza antolatu ditu urtemugarako

Oria auzoan Buruntz-Azpi elkarteak sortu zenetik 50 urte dira. Milaka ehiza eta arrantza lehiaketa, hainbat omenaldi eta bazkari antolatu ditu elkarteak urte hauetan, eta hau guztia gogora ekartzen duen liburu berezia prestatzen ari da elkartearentzat Kexus Marcos. Berarekin bildu gara lan honi eta elkarteari buruz gehiago jakiteko.

Manolo Urdanpilletaren hitzak dakartza gogora Kexuk elkartearen hastapenak azaltzeko: "Oriatxiki baserriko sagastien azpian meriendak egiten zituzten Oria fabrikako langileek eta gazteek" eta "Braulia Enea etxean ekonomatua egin zutenen bertatik edariak eta bokatak hartu eta zuhaitz azpira joaten ziren merienda egin edo kartetan jokatzera".

Arestian, Braulia enea ondoko ukuilu bat utzi eta bertan biltzen ziren; Esperantza auzoa egin zenean, berriz, lokala lortu eta elkartea sortu zuten. "Hasieran hamabi bat kide baziren ere, urte betearen 80ra iritsi ziren" azaldu digu.

Auzoaren sorrera

Esperantza auzoa eraikitzeke kooperatiba egitearen ideia merienda horietan sortu zen: "Elkarteko kide diren Olaziregi, Urdanpilleta anaiak edo Txutxi Ramirez izan ziren horietako batzuk" aipatu du Kexusek. "Talo kaleko jendearekin bat egin zuten, pertsona kopuru minimo bat behar zutelako eta kooperatiba sortu. Honela, etxebizitza merkeagoak egin eta auzoa sortu zen".

Honetaz gain, elkartearen xedea hasieratik ehiza eta arrantzarekin lotua egon da, "egun ere ekintza eta lehiaketa



Elkarteko kideetako batzuk Iruñeko San Ferminetan. BURUNTZ-AZPI ELKARTEA

ta ugari antolatzen dira: postu-uen zozketak, ibaian edo itsasoan arrantzan egiteko txangoak eta abar."

Arrantza eta ehiza

Elkarteak ekintza hauek egiteko mendia eta postuak garbitu eta Oria ibaian arrainak askatzen dituztela azaldu digu. Gainera, familiek txangoak ere egiten omen dituzte: "udan arrantzara Leizaranera edo Oriora doaz eta paela ederrak egiten dituzte".

"Familia izpiritua dago elkartearen, elkartearen azken finean, auzoko taberna eta bilgune da eta," adierazi du.

Horregatik, saiatu da

elkartea auzoko San Inazio jaiei eusten: "duela bizpahiru urte jaiak herrira zabaltzen saiatu ginen, baina azkenean auzorako utzi ditugu: bazkaria, martxa kontrolatua, usakumeen tiro lehiaketa..."

Xelebreak

Hau guztiaz gain, elkartearen hainbat ekimen antolatu izan dituzte bazkideek: "Hasieratik izan dira xelebreak. Batzuk San Ferminetara edo Tolosako inauterietara irteerak antolatzen zituzten" azaldu digu.

"Gero, omenaldien garaia etorri zen, baita elkartearen arteko txapelketena ere" atxiki du eta azken urteetan,

Urteurreneko egitarua

Larunbatean 17an hainbat lekitaldi antolatu ditu Buruntz-Azpi elkarteak 50 urte ospatzeko: Goizean, 11:00etan, Oriako Karmengo Amaren kaperan meza eta 12:30ean, auzoko plazan sagardo eta pintxo dastaketa.

Ostean, bazkari herrikoia eta ohikoa pote eta toka txapelketa. Gau alde-ara, herriko *Ahuen* eta Valentziako *Floristeria Mateo Morral* taldeen kontzertua egongo da.

barrikotea, garagardo azoka, calçot jana, eta abar aipatu ditu Kexus Marcosek.

Laguntzeko prest

Izan ere, Kexusek aipatzen duenez, "sukaldari finak daude elkartearen" eta gainera, "beti egon dira laguntzeko prest, Korrika zetorrean edota zaharren omenaldirako bazkaria prestatzen zuten."

Bihar elkarteko sukaldarien trebetasuna ikusi ahal izango da urteurreneko bazkari herrikoian.

Indarkeriari buruzko PSE-EE eta PPren mozioa atzera bota zen

Astearte arratsaldeko Udaltzarrean bi erabaki nagusi izan ziren: udal langileen lanpostu-uen zerrenda onartu zela eta "ETAre indarkeria" eta biktimei buruz PP eta PSE-EE alderdien proposamena atzera bota eta beste alderdiek mozio bateratua aurkeztu zutela.

Bildu, EAJ eta LOHP alderdiek aurkeztutako ordezkari proposamenean esaten da, "Udalbatzarrak indarkeria, politika egiteko edo helburu politikoak lortzeko tresna moduan arbuizatzeko konpromisoa hartzen du, edozein dela ere bere jatorria eta izaera" eta "indarkeriaren biktimak guztienganako aitortpena eta errespetua azaltzen du". Gainera, elkarrizketa politikoa aldarrikatzen du testuak.

Bestetik, aipatu bezala, langileen zerrenda proposamena jorratu zen. Gizarte zerbitzuaren langile kopurua handitzea aho batez onartua izan arren, PSE-EEk kritika egin zion administrari posturako udalagaz ezarri duen 3. mailako hizkuntza-eskakizunari "herritarren kalterako delako".

Azalpenak

Honetaz gain, Pablo Barrio alkateak egin diren kreditu aldaketek berri eman eta galdere-eskaerei heldu baino lehen, gobernu taldeak bi azalpen eskaini zituen.

Lehenik, Somotoko Batzordeko azken txostenari buruz dituzten zalantza eta honetan hutsuneak izanik, gai honetan zein bidetik jo aztertzen ari direla azaldu zuten alkateak.

Bestetik, Kirol Batzordeko buruak Taxio Arrizabalagak Jesus Zaballos jaunaren kexei erantzunez jakin arazi zuten, kirol saila lanean dagoela kiroldegiko ordutegiak aldatzeko eta kirol elkartearen eskaerei erantzunez, urtariletik aurrera, Michelingo kirol gunea 15:30etik 22:30era izango dela zabalik.

Galderei dagokionez, bakarra egon zen. PSE-EEk Atsokakarko zaharren egoitza, jangela eta haur eskolaren egoeraz galdetu zuten, Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlearitzak haien ardura hartu behar baitute.

Gobernu taldeak Atsokakarreko arazoan auzibidea alde batera utzi eta EUDEL-en bidez konponduko duela eta haur-eskola Partzuergoaren eskutian utziko duela azaldu zuten.

Jangelaren kasuan, egoerak berdin jarraitzen duela aipatu zuten, nahiz eta "aurreko urtean konpondua egon beharko lukeen."

50 urteak argazkietan


Urteurren honetako ekimen berezietako bat, Buruntz-Azpi elkartearen 50 urteak argazkietan laburbiltzen dituen liburua da. "Elkarteko kide batzuk argazki bilduma egiten hasi eta hamar urte egon ziren lanean," azaldu digu Kexus Marcosek. Horrekin eta bazkideek utzitako argazkiekin,

"zerbait interesgarria egin ahalko dugu".

Liburua 50. urteurreneko ospakizunean banatu nahi zituzten bazkideei, "baina zuzendaritzak belaunaldi gazteak ere agertzea nahi zuten eta horregatik biharko argazkiak ere atxikiko dira. Honela, azaroa edo abendurako argitaratzea espero dugu" azaldu du.



Buruntz-Azpi elkartearen irekiera eta bedeinkapenerako gonbidapena. BURUNTZ-AZPI ELKARTEA




www.comercio-gipuzkoa.com

Hurbildu Loidi-Barrengo Stock Azokara!

Aukerako produktuak eta prezioak aurkituko dituzu irailaren 24 eta 25an Stock eta Saldoen IV. Factory Azokan! Berrikuntza nagusia kokalekua izango da, Loidi-Barrengo pilotalekua. Sarrera euro batekoa izango da eta honen truke, hainbat sari eskuratu ahal izango dituzu: Martin Berasategi jatetxean bi pertsonentzako afaria, Dakara jatetxean bi pertsonentzako bi afari bertako **Nazioarteko ostegunak** ezagutzeko edo Orioko Balea hotelean bi pertsonentzako menu talaso-gastronomikoa eta beste bi zirkuitu termal.



MAITE BETELU gestoria, Maite
www.mbetellu.com



IZARRA bixitegia, Rosa eta Juan
www.izarrabixitegia.com



MAYA Ientzeria, Jone
www.mayalentzeria.com




SUKOA burdindenda, Mª Jesus
www.sukoa.com



BAZAR ABREU, Diego
bazarabreu@hotmail.com



EKAIN LIBURUDENDA, Itaki
www.ekain.net




LARRANAÑA harategia, Paixi, Ana eta Naroa
www.patxiarranaga.com




OKELA harategia, Marijo eta Joseba
www.okela.com



ZUMABURU liburudenda, Lola
www.libreiazumaburu.com



ARTITZA mertzeria, Mª Carmen
www.merceriaaritzia.com




DAKARA laberna, Jenni, Maria eta Luti
www.dakara jatetxea.com



LIZARRI optika, Izlar
www.lizarri.com




OLMI mertzeria, Julio, Olmi eta Lurdes
www.olmi.com




MICHELIN koperatiba
www.coopmichelin.es



ARREGUI elektrizitatea, Mikel eta Ainhoa
www.electrividadarregui.com



GOXOGI gozotegia, Inma eta Joseerra
www.goxogi.com



MAIANE perfumeria, Ana
www.perfumeriamaiane.com



ORMAZABAL iboradenda, Ramon eta Koro
www.floristeriaormazabal.es



ALDATZ hortz klinika, Juanjo
www.dentalaldaz.com



MARTINEZ MULTIMEDIA, Jesus
www.dendam.com




ITURBE oinetakoak, Maixa
www.iturbe.com



MARTIN BERASATEGI jatetxea, Martin
www.martinberasategui.com



OTAEGI altzarak
www.inchaustifdecoracion.com



URRUZOLA mertzeria, Lurdes
www.urruzola.com

Ane Labaka Bertsolaria

“Nahiago nuen urruti kantatu”

■ Larunbatean hasiko da Gpuntuaren bigarren fasea Bastero kultur Gunean
 ■ Final Zortzirenetako kanporaketa bat Kultur Etxean urriaren 8an 17:30ean

Larunbat arratsaldean hasiko da Andoainen, Gpuntua, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren bigarren fasea, eta hain juxtu Ane Labaka Lasarte-Oriako bertsolariak kantatuko du lehen saio horretan, Bastero Kultur Gunean, 17:30ean, Amaia Agirre, Ander Lizarralde, Iñigo Izagirre, Mantxi eta Manu Goioanarekin batera. Fase honetako zazpi saioetako bat Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean egingo da urriaren 8an arratsaldeko 17:30ean. Andoni Otamendik kantatuko du bertan. Saio hauetarako sarrerak www.gpuntua.com web gunean daude salgai, saioa jokatu aurreko ostiralean eguerdiko 12ak arte.

JON ALTUNA IZA

Ane Labaka bertsolariak nahiago zuen Gipuzkoako Txapelketako final zortzirenetan "etxean baino kanpoan kantatu" eta Lasarte-Orian bertan ez baina oso hurbil kantatuko du, Bastero kultur gunean.

Andoainen eta lehenengo saioan kantatuko duzu... prest?

Kanporaketa bat Lasarte-Orian zela ikusi nuenean, esan nuen, "ia ez zaidan Lasarten tokatzen!", eta bertan ez baina herrikit hamar minutura... Lehen saioa izatearena, ez dakit, agian nahiago dut, lehenengoan kantatu eta kitto. Prestatu, udara hasi aurretik esan genuen prestatuko genuela, astero elkartzeko ginela, eta azken astetan ari gara zer edo zer, baina orain arte ezer ez, udalekuetan egon naiz, gero oporretan.... deskonektatuta.

Zer sentituko duzu Amaia Agirre zure irakaslearen ondoan kantatzean?

Ilusioa egiten dit, eta berari ere bai. Gustura, babes bat da. Gainera, iruditzen zait bertsolari onekin kantatzea tokatu zaidala, bera da bat eta lasai nago. Hori bai esan didate topera dabilela.

Lagunduko al dizu horrek?

Nik uste baietz.

Eta maila oneko bertsolariekin kantatzeak ere bai...

Beldur pixka bat ere ematen dit, izenak irakurri nituenean esan nuen: ni non sartu naiz?

Zein da behin final zortzirenetara iritsita zure helburua?

Banekien hori galdetuko zenidala; nik uste helburua jada bete dugula, aurrekoan ere fasez pasatzen ez bagina berdin zuela esaten genuen, baina azken finean ikusten genuen

pasatzeko aukera eta pasa nahi genuen. Presio gehiago jartzen genion gure buruari, orain jada...

Ilusiorik egiten al du aurrera pasatzeak?

Bai, egin zidan. Orain, ahal dena egitera aterako gara, baina ezin dugu gehiegi espero, errealista izan behar da.

Beraz, lasai joango zara?

Ez dakit, baietz erantzun nahi nuke, baina uste dut ezetz.

15 bertso dira, hiruna ofizioan gaia emanda (Iparragirre doinuuan, zortziko txikian eta zortziko handian), eta beste sei bakarka, hiru kartzelako gaiarekin nahi den doinuuan eta neurrian, bi puntu erantzun eta oin batekin gehienez bost puntu bertsosoa. Zein da zuretzat lanik kuttunena?

Aurten ordena da nahiko arraroa, Iparragirreraren doinuuan hasi eta gero zortziko nagusian kantatzea. Bakarka ari naiz gustura. Silveirak azken Nafarroako Txapelketan erabili zuen doinua hartu dut eta gustura ari naiz horrekin. Baina hiru bertso dira...

Eta ez zaude ohituta...

Orain arte gazte sariketetan bi ziren, eta hiru bertsoak istorio bat sortzea eskatzen dizu.

Zer moduz ikasketak?

Penarekin naiz orain berriro ikasketekin hasteko, baina gogoia ere badaukat Gasteizera joateko.

Gasteizen bertsolari batzuek topatu zarete, elkartzten al zarete bertsotarako?

Bai, tabernan elkartzten gara



asteazkenero eta aritzen gara. Giro ona izaten da, toki ezberdinetakoak gara gainera, denak hain ikasten ari garenak: Peio Ormazabal bizkaitarra, Ander Sorozabal gazteiztarra, Azpi zubietarra, Odei Iruretagoiena zarauztarra,...

Bestela, hemen, norekin aritu zara entrenatzen?

Betikokekin, Beñat Iguaranekin, Azpirekin, Unai Gaztelumendirekin,... eta azken astetan Andoni Otamendirekin. Amaia Agirre ere etorri da tarteka.

Nola ikusten dituzu Muñoa eta Otamendi lasarteoriarrak?

Muñoa ez dakit nola ibiliko den, ez dut aspaldi ikusi eta bertsotan entzun, baina ondo egingo duela uste dut. Asko transmititzen du; oso ondo kantatzen du, (beti esaten dut bertsolari perfektua osatzeko Muñoaren ahotsa aukeratuko nuela), ondo arituko da. Eta

Otamendirekin entrenatu naiz, ondo, esan digunez erri-mategia egiten aritu da, Kaslos Aizpuruarekin ikasitakoa lantzen,... eta gustura da etxean kantatzen duelako.

Ba al duzu faboritorik? Nork jantziko du txapela?

Aitor Sarriegik irabaziko duela esan didate askok. Baina nik uste Beñat Gaztelumendik irabaziko duela eta estatutuko litzaidake. Ez-ustekorik ere izan daiteke, jende asko da hurbil ibiliko dena, Uxue Alberdi adibidez; zaila da bat esatea.

Bertsoak idazten erakutsi duzu zure trebetasuna hainbat sari-ketetan... laguntzen al duite bapatean aritzeko?

Nik uste baietz. Errimatzen duten hitzen zerrendak egin eta buruan gordetzeak ez du niretzat hainbeste balio, baina bertsoak idatziz gero, badakizu nola sartu edo erabili, ez da bakarrik errima jakitea. Aspal-di ez dut bertsoak idazten, baina, bai, ariketa oso ona iruditzen zait gero bapatean egiteko. Aparte gauzei hainbat buelta ematen dizkiozu. •

OSASUN SAILA

Ikastaroa janari manipulatuzailea izateko

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Osasun Departamentuarekin elkarlanean, arrisku handiko janari-manipulatuzaile ikastaroa emango du. Ostalaritzako sektoreari zuzendua dago eta Osasun Sailak eskatzen duen autokontrolaren inguruko edukiak ditu.

Ikastaroa irailaren 28an, 16:00etatik 20:00etara emango da, Osasun Zentroko bigarren solairuko erabilera antizeko aretoan.

Prezioa 45 eurotako da pertsonako, eta langabetuek prezio berezia izango dute, 35 euro. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, deitu KIUB(OMIC)-era, 943 361 605, edo Elkolab. S.Coop. enpresara, 943 533 303. •

XPRESSION KE

Artista eta musikariei deialdia

Xpressionk Kultur Elkarteak Lasarte-Oriako musikari, aktore eta edozein esparruko artistak, kultur etxeko kafetegiko eta Jalgi Kafe Antzokiko ekimenetan parte hartzera gonbidatu nahi ditu.

Xpressionkek, hurrenez hurren, Udalarekin eta Ttakun Kultur Elkartearekin elkarlanean, espazio hauek kudeatzen ditu eta bertako artistak kontuan izan nahi ditu egitarauak prestatzeko.

Elkartearekin harremanetan jartzeko jokin@xpressionk.net helbidera mezu elektronikoa bidali edo 943 368 137 zenbakira deitu. •

YOGA

Ikasturte hasiera

Sanatana Dharma Yoga Eskolak ikasturte berriari hasiera emateko hainbat ekitaldi prestatu ditu.

Ekitzak atzo hasi baziren ere, meditazio eta mantra saioa izan zuten, hilabete bukaera arte hitzaldiak eta dokumentalak eskainiko dituzte, 19:00etatik aurrera. Gaur, esate baterako, *Brihaspati Viveka* edo bereizketari buruz mintzatuko da.

Era berean, yogan lehenengo pausak eman nahi dituenarentzat hastapen ikastaro intentsiboa antolatuko dute. Matrikula 50 eurotako da. Izena emateko edo informazio gehiago eskuratzeko, 685 773 081 zenbakira deitu edo karmainhoa@gmail.com helbidera mezua bidali. •

“Ilusioa eragiten dit Amaia Agirre irakaslearekin kantatzeak. Babes bat da”.

Egunero

Erakusketa

AIZE OTANOREN *BEGIRADAK* erakusketa zabalik da irailean zehar, JALGI KAFE-ANTZOKIAN



Ostirala, 16

Hitzaldia

Brihaspati maisuak *Viveka* edo benetako eta irrealaren arteko bereizketari buruzko hitzaldia eskainiko du. SANATANA DHARMA YOGA ESKOLA, **17:00etan**, GAZTELANIAZ

Igandea, 25

Magia ikuskizuna

RAFAFA MAGOAK haurrentzako magia ikuskizuna eskainiko du UDABERRI TABERNAN, **11:00etan**



Erdi Aroko Azoka Okendo plaza eta inguruetan

Ostirala, 16

18:00etan, Musikari eta komedianteak eta pregoia
18:30etan, Haurrentzako txontxongiloak
19:00etan, Iratxoak
20:00etan, Eroen konpartsa
20:30etan, Agota eta damaren arteko ezinezko maitasunak
21:30etan, Il cabaretto Medievale

12:30etan, David ogroa
13:00etan, Eskekoak
13:30etan, Printze sentikorra
18:00etan, Musika-erronda
18:30etan, Haurrentzako txontxongiloak
19:00etan, Iratxoak
20:00etan, Eroen konpartsa
20:30etan, Zalduna eta ezkutaria
21:30etan, Kale-antzerki ibiltaria
22:00etan, Il cabaretto Medievale

Larunbata, 17

11:30etan, Musikari eta komedianteen etorrera
12:00etan, Jentila versus kristautua

23:15etan, *The Wolves* kale-antzerkia. DEABRU BELTZAK. Eusko Jaurlaritzako Kale Antzerkia Bultzatuz ekimena

Igandea, 18

11:30etan, Musikari eta komedianteen etorrera
12:00etan, Haurrentzako txontxongiloak
12:30etan, David ogroa
13:00etan, Zalduna eta ezkutaria
13:30etan, Printze sentikorra
18:00etan, Musika-erronda
18:30etan, Haurrentzako txontxongiloak
19:00etan, Iratxoak
20:00etan, Eroen konpartsa
20:30etan, Agota eta damaren arteko ezinezko maitasunak
21:30etan, Azokaren amaiera-kalejira



Buruntz-Azpi elkarte 50. urteurrena

Larunbata, 17

11:00etan, meza Oriako Karmengo kaperan
12:00etan, trikitixa eta panderoek girotutako pintxo eta sagardo dastaketa
14:30etan, Bazkaria
16:00etan, mus-tute txapelketetako sari banaketa
18:00etan, pote eta toka txapelketak
20:30etan, Kontzertuak:
 • Lasarte-Oriako *Ahuen*
 • Valentziako *Floristeria Mateo Morral* taldea (flamenko, rumba)



Manuel Lekuona kulturetxea

Liburutegiko ordutegia

Astelehenetik ostiralera goizetan 10:00 - 13:00 eta arratsaldetan 16:00 - 21:00

Larunbatetan itxita

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa.

Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkaria. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak

Udal Dantza Eskola

Lasarte-Oriako Udal dantza eskolak urriaren 3an emango die hasiera aurtengo ikastaroari. Heldu, zein gaztetxoek zuzendurik dauden ikastaroak dira dantza eskolak eskaintzen dituenak.

Matrikulatzeko epea irailearen 30a arte izango da irekia, Kulturetxeko hirugarren solairuan.

Alboka Abesbatza

Alboka abesbatzak ikasturteari hasiera eman dio eta 6 eta 65 urte arteko herritarrek animatu nahi ditu parte hartzera. Entseguak astelehena eta ostegunetan 20:00etatik 21:30era burutzen dira, Arantzazuko Ama elizazpiko aretoan.

Zaharren omenaldiko bazkaria

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte zerbitzuetako sailak jakin arazi du urriaren 2an izango dela zaharren omenaldiko bazkaria.

Txartelak jasotzeko Villa Mirentxura gerturatu ordutegi honetan astelehenetik ostira-

lera 10:00etatik 13:00etara. Epea irailearen 21a arte dago irekia.

Baldintzak 1945an edo lehenago jaiotako eta Lasarte-Oria erroldatua egotea dira. Era berean, nahiz eta 1942an edo lehenago jaiotakoak ez izan, aipatutako baldintzak betetzen dituzten senar-emazteek izena eman ahalgo dute.

Gonbita eskuratzeko beharrezkoa izango da NANA aurkeztea.

Emakumeen saskibaloit aldea

Ostadarrek Saiarre Kirol Taldeak 1996 eta 1997. urte bitartean jaiotako emakumezkoen saskibaloit aldea osatzeko deialdia egiten du.

Izen ematea Ostadarren egoitzan, Geltoki kalea 25, egingo da eta epea irailearen 20an bukatuko da.

LOKEKO tenis eskola

Lasarte-Oria Kirol elkarteke tenis eskolak 2011-2012ko kurtsoari eman dio hasiera. Ataleko arduradunek jakin

arazi dutenez, ordutegi eskaintza aurreko urteko bera izango da.

Izena emateko edo informazioa eskuratzeko kirolgunera hurbildu, 18:30etik aurrera, edo 647 156 146 telefono zenbakira deitu behar dute interesatuek.

Gimnasia Erritmikoa

Lasarte Oriako Kirol Elkarteke gimnasia erritmiko taldea asteazkenean hasi zen lanean.

Ordutegiak ohi bezala, gimnasten maila eta kategoriaren arabera sailkatu ditu. Saioak asteazken, ostegun eta ostiralean 19:00etatik 20:00etara izango dira eta larunbatean 12:00etatik 14:00etara.

Hauetan izena emateko aukera dago entrenamendu ordutan gerturatuta edota Maiterekin kontaktuan jarrita 676872029 telefonon.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
 Tel.: 943 366858
 txintxarri@txintxarri.info

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Ostirala 16

20:00etan, Allerru-Ostadar (Erregional Goren) Plazeta, Lezon.

Larunbata 17

10:30etan, Kostkas MB-Ostadar (Infantil txikia) Matigoxotegi, Donostian.
11:30etan, Ostadar-Euskalduna (Infantilen Ohorezko Maila) Michelinen.
12:00etan, Sportin de Herrera-Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila) Herrera, Donostian.
15:30etan, Ostadar-Oiartzun (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelinen.
17:15etan, Texas Lasartearra-Hernani (I. Erregionala) Michelinen.
18:00etan, Vasconia-Ostadar (I. Erregionala) Puio, Donostian.
18:30etan, Hernani-Ostadar (Emakumezkoen Erregionala) Zubipe, Hernanin.

PILOTA

Ostirala 16

19:00etan, Aurrera Saiaz I-Intza I (Eskuz binakako, II. kadetea) Bidegoianen.
19:30etan, Euskal Jolas-Intza 2 (Eskuz binakako, II. kadetea) Itziarren.

Larunbata 17

16:00etan, Intza-Azkoitia (Eskuz binakako, I. kadetea) Michelingo pilotalekua.

ATLETISMOA

Larunbata 17

20:00etan, herritar talde batek Elgoibarko II. Gau Kros herrikoian parte hartuko du.

Igandea 18

09:30etan, herritar talde batek V. maratoi erdia Plazolaatik proban parte hartuko du, Leitzan.
11:00etan, herritar talde batek Usurbilgo 4. Baxurde Krossean parte hartuko du.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 17

15:00etan, Bazpi txirrindularitza eskolako juniorrek mundialaren aurreko klasikoan parte hartuko dute, Beasainen.

Igandea 18

09:00etan, herritar talde batek Lesakako BTT ibilbidean parte hartuko dute.



txitxarro erretegia

Etorri, probatu
eta ikusi gure kalitate-prezio ona

Astebukaerako menua

Karta

Despedidak
Bataioak
Familiarteko bazkariak
.....

Txikierdi Auzoa, Iguarte Kalea 11 (Urbilen parean)
20170 Usurbil • Tel.: 943 369964

25
URTE
ZUEKIN!



ONGI ETORRI

BIENVENIDO
WELCOME
BENVINGUT
مرحبا بكم

BIENVENUE
歡迎
WILLKOMMEN
BINE AI VENIT
BEN-VINDO

Matrikulaldia: irailaren 16ra arte
Klaseak irailaren 26an hasiko dira
Bulego orduak: 08:30 - 19:15

Matrikula zabalik
www.lasarte-oria.org

- 10 ordu: astelehenetik ostegunera
- Txandaka ibiltzeko aukera (maila guztietan goiz zein arratsalde)

Euskara ikasteko.
Ordutegi malgua:
goizez, arratsaldez eta gabez.
Beka sistema eta diru laguntzak ditugu.

Matrikulaldia: irailaren 16ra arte
Klaseak irailaren 26an hasiko dira

25 urte Lasarte-Oria euskaraz lanzen
años trabajando por el euskera



Lasarte-Oriako Udal Euskaltegia • Tel.: 943 361621 • www.lasarte-oria.org/eu/html/25/1147.shtml

Euskara

ikasteko aukera

Diru-laguntzak

% 40 - % 75

2011-2012

ona eta merke

Edozein

**lasarteoriatarrentzat
matrikularen %40
arteko diru-laguntza.**

**Gurasoentzat,
merkatarientzat eta
begiraleentzat %75
artekoa.**

Udaleko euskaltegia

- Helbidea: Be ko kalea bidea 1
- Telefonoa: 943 361 621
- e-maila: euskaltegia@lasarte-oria.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 16ra

Muntteri AEK euskaltegia

- Helbidea: Geltoki kalea 17 - behea
- Telefonoa: 943 372 863
- e-maila: lasarte@aeek.org
- Matrikulatzeko epea: irailaren 1etik 30era

Informazio gehiago

Udaleko euskarako zerbitzuan:

- Helbidea: Kale Nagusia 22
- Telefonoa: 943 376 184
- e-maila: euskara@lasarte-oria.org



LASARTE-ORIAKO UDALA